

MUNDUKO KULTURAK AIARALDEAN



SARRERA



BOR-BOR ELKARTEA

BOR-BOR AIARALDEKO FEMINISMO ELKARTEA 2022. urtean sortu zen, eskualdean feminismoa euskaraz saretu eta ahalduzko helburuarekin. Geroztik, hamaika proiektu garatu izan ditugu, batik bat Arabako Foru Aldundiaren berdintasun eta kulturartekotasun dirulaguntza deialdien bitartez jasotako babes ekonomikoari esker.

Kulturartekotasun proiektu gehienak Amurrio eta Laudioko EPA zentroetako irakasle eta ikasleekin batera osatu dira, modu horretan kulturartekotasuna, feminismoa eta euskara uztartuz. Dena den, herrialde ezberdinetako kultura, ohitura eta hizkuntzei tokia egite aldera, jatorrizko hizkuntzan jasotako azalpenak topatuko dituzue hurrengo orrietan QR kodea eskaneatuta.



MUNDUKO KULTURAK AIARALDEAN

EKOIZPENA: BOR-BOR FEMINISMO ELKARTEA

DISEINUA: KOMUNIKA.EUS

BABESLEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA

HIZKUNTZA: EUSKARA

MUNDUKO KULTURAK AIARALDEAN argitalpena 2023. urtean eginiko lana da. Amurrio eta Laudioko EPA zentroetako etorriberrien komunitateekin burutu da eskuartearen duzun proiektua, kultura eta hizkuntza ezberdinetako ohiturei aitortza soziala eta ikusgarritasuna emateko helburuarekin. Bor-bor Aiaraldeko Feminismo Elkartearen eskutik, etorriberri ugari aritu dira eskolan euren kulturetako festa egunen berri emateko materiala prestatzen.

Arestian esan bezala, liburuxka euskaraz ekoitzia badago ere, bertsio digitalen erdara da nagusi (arabiera, errumaniera, gaztelera, ukrainiera...). Horrenbestez,

euskaraz idatzitako proiektua da, baina eleaniztasunean garatua. Irakurleak orritik orrira, herrialde ezberdinetako festa eta bizi tradizioak ezagutzeko aukera izango du, baita irudien bidez ekimena irudikatu, edota, tokiko hizkuntza entzutekoa ere.

Horretarako, eta multimedialtasunari bide emanez, audio formatua eta idatzizkoa bateratu dira. Era berean, gure bailarako jai egun bereziak kultura ezberdinetako kideei azaltzeko baliatu da argitalpena.

2022. urtean abiatutako proiektuaren bigarren edizioa da honakoa. Hain zuzen, iaz, 'Munduko emakumeak eta janak' foiletoa gauzatu genuen emakume etorriberriekin sarelanean.

PERU



PAZKO JAIA

EGILEA: PATRICIA

JAIoTERRIA: PERU

BIZITOKIA: LAUDIO

HIZKUNTZA: GAZTELERA



Peruarra da Patricia Valdevieso Flores. Bertako kultura eta festez galdetuta, argi du erantzuna: 'Pazko jaia' da gehien gustatzen zaiona. "Gabonetako zuhaitza jartzen dugu etxeetan, izar argitsu eta koloretsu batekin". Leihoak ere apaintzen dituzte, gainera. "Dena bukatzean, zuhaitzaren azpian jartzen ditugu umeentzako opariak, eta Pazko jaiko afaria prestatzen dugu segidan: indoiolarra ontzi batean sartzen dugu, eta labean prestatzen dugu". Mahaia ere dotoretzen dute, eta familiako guztiak elkartzen dira: "Topa edo brindis berezia egiten dugu, datorren urteak dena ona ekar dezan". Gauean suziriak ere botatzen dira zerura, "Pazkoa familian elkarrekin eta batasunean ospatzea da". Horrez gain, jainkoari eskerrak emateko modua ere bada peruarrentzat, "pasatako guztiari agur esateko modua da, eta senideak besarkatu ostean, helduak hizketan geratzen gara, eta umeak jasotako opariekin jolasten. Denak oso pozik eta zoriontsu joaten gara etxera". Abenduaren 24an ospatzen dute festa.



Argazkiak: www.elcomercio.pe



RAMADANA

EGILEA: LAUDIO ETA AMURRIKO EPA

JAIoTERRIA: MAROKO

BIZITOKIA: AIARALDEA

HIZKUNTZA: ARABIERA



Ramadamaislamiarrenbederatzigarren hilabetearen izena da, oso hilabete sakratua musulmanentzako, Hala, hilabete bateko baraualdia egiten dute ilargi egutegiari jarraituta. "Urtero data ezberdinetan egiten da, beraz. Gutxi gorabehera 10 eguneko tartea egon daiteke", azaldu dute.

Ramadanak dirauen bitartean musulmanek debekatuta dute edatea eta sexu

harremanak izatea eguzkia gordetzen den arte, "eta gainera ezin da erre, ezta ahotik sar daitekeen beste jakirik kontsumitu". Horregatik da horren ospetsua, Ramadan amaierako festa kultur komunitate horietan. "Hilabete batez jainkoari dedikatzen diogu denbora, urtean zehar mila istoriorekin gabiltza eta. Batez ere, gure arima purifikatzeko modua da, autoestima, sakrifikatzeko gaitasuna eta autosuperazioa bultzatzeko erlijio ariketa".

ERRUMANIA



Argazkiak: www.steemit.com

1990. urtetik aurrera ekin zioten Errumanian abenduaren 1ean "jai nazionala" ospatzeari. Hala dio Elena errumaniarrak: "Gure herrialdeaz oso harro egoteko eguna da, 1918. urtean Transilvania, Bucovina eta Besarobiaren batasuna ospatzeko sortua". Kontatu duenez, militarren desfileek hartzen dute protagonismoa, "famatuena Bucaresteko Garaipenaren Arkukoa da, baina Alba Luliakoa ere oso ezaguna da".

Era berean, ospakizun txikiagoak egiteko

aprobatxatzen dute egun hori, "militarren desfile txikiagoak egiten dira herrietan, eta hainbat lore koroa ere ateratzen dira kaleetara".

Elenari asko gustatzen zaio eguna, batez ere katedral, eliza zein monastegietan "heroiak" goraipatzen direlako. Horrez gain, "gastronomia jaiak egiten ditugu, neguko oporraldiari hasiera emanez. Ohitura da ardo kopa batekin edo brondwy irakina edaten gozatzea eguna, bai eta frijolak sukaltzea ere".



ABENDUAK 1, FESTA NAZIONALA

EGILEA: ELENA

JAIOTERRIA: ERRUMANIA

BIZITOKIA: OKONDO

HIZKUNTZA: ERRUMANIERA



Argazkiak: www.facebook.com/marruecos.magico

CHADA FESTA

EGILEA: FATIMA**JAIOTERRIA:** MAROKO**BIZITOKIA:** LAUDIO**HIZKUNTZA:** ARABIERA

makumeek sei urte betetzen dituztenean ospatzen den jaia da "Chada". Fatima Ahejtanen esanetan, ezkontza bat balitz bezala bizi dute eguna. "Ezkontza eguneko jantzi berdina erabiltzen dugu. Familia eta lagunen presentziarekin egiten dugun festa izaten da, eta musika eta marokoar janari ugari egoten dira", azaldu du. Horrez gain, emakume gisa, alaitasuna transmititzen dion eguna da: "Ospakizun honek poztasuna ematen digu neskoi, hazten direnean ezkonduko direla jakiten baitute gure alabek".

SAHARA



EMAKUMEEN JAIA

EGILEA: TGARAH

JAIO TERRIA: SAHARA

BIZITOKIA: LAUDIO

HIZKUNTZA: ARABIERA

“Emakume sahararrak banatu egiten garenean ospatzen dugu emakumeen jaia”, azaldu du Tgarahak. Banatzen direnetik hiru hilabetera egiten dute ospakizuna, eta eurek bakarrik hartzen dute parte ekitaldian: “Hennarekin makillatu egiten gara guztiok, baina ederren dagoena beti izaten da banatu den emakumea, bera baita egunaren protagonista. Normalean, gizon bat etorri ohi da ahuntz edo arkume batekin berarentzako, eta hori izaten da gonbidatutako mutil bakarra. Emakumeari gustatzen bazaio, geratu egiten da gizona, eta bestela ez”, kontatu du. Hala ere, ez dute zertan gehiago elkartu: “Emakumeen jaira doan gizonarekin batzutan ezkondu egiten da berriro emakumea, baina beste batzuetan ez. Edota, gerta daiteke, banatu den pertsonarekin itzultzea ere”.

Beste festek ez bezala, egun bateko iraupena izaten du jai honek. Aitortu duenez, azken urteetako ohitura da hau, eta Saharan eta Mauritanian egiten dute, berak dakiela behintzat.



Argazkia: www.ecsaharai.com



Argazkia: www.facebook.com/MuseoCulturasdelMundoINAH



Argazkiak: www.ukrainetrek.com

Olena Barantsova ukrainarraren esanetan, 'Vyshyvanka eguna' ukrainar tradizioak belanaldi berriei transmititzeko eguna da. Urtero ospatzen da maiatzeko hirugarren ostegunean, "nahiko sinbolikoa da, ez dagoelako estatu zein elizari lotutako jai-egun batekin ere zerikusirik".

"Ez da bakarrik jai nazionalari lotutako arropagatik ezaguna, ukrainar herriaren kulturaren oso ikur garrantzitsua ere bada. Egun horretan, flashmob berezi bat egiten

dugu guztion artean, eta jendeak bertako arropak janzten ditu, argazki eta irudi mordoak hartu, eta sare sozialetan argitaratzen dituztelarik". 2006.urtean jai egun izendatzea erabaki zuten, Lesya Voronyuk izan zelarik ekimenaren sustatzailea, Chernivtsiko Unibertsitate Nazionalen Historia Fakultateko ikaslea zen garaian. "Ikasleak bere kide guztiak animatu zituen Ukrainako arropa tipikoekin etortzera, eta bere lagunak ez ezik, irakasleek ere egin zuten bat ekimenarekin. Urteen poderioz, Ukraina osoan ospetsu bihurtu den tradizioa bilakatu da".



YSHIVANKA EGUNA

EGILEA: OLENA

JAIOTERRIA: UKRAINA

BIZITOKIA: AMURRIO

HIZKUNTZA: UKRAINERA





Argazkiak:
^ www.culturecherifienne.com
> www.decoracionalcazaba.com



Aomatif Jabla marokoarrarentzat bere kulturako jai esanguratsuetako bat da 'umeen jaiotza'. Berez, haurra munduratzan denetik zazpi egunera ospatzen dute, eta arkumea hiltzea eta jatea izaten da ohitura. "Familiako guztiak gonbidatzen ditugu, eta ama 'kaftan' izeneko jantzi berezi batekin egoten da egun horretan", kontatu du Aomatif Jablak.

Ez da izaten hori, ordea, berezitasun bakarra: 'henna' ere erabiltzen du umearen amak, "eta ondoren opariak jasotzeko

eseri egiten gara. Jendeak dantza egiten du. Lehendabizi pastelak jaten ditugu, eta ondoren arkumea".

Fatima Bellashsinik, berriz, 'Aquiqah' deitzen diotela ospakizunari erantsi du. "Arkumea umea izendatzeko prestatzen dugu, jainkoari eskerrak emateko. Amak zein familiak erditu aurretik prestatzen ditu jaki gozoak". Egun horretan jaten den beste gutizia bat 'rafisa' izenekoa da: "Gozoak jan eta tea edan ondoren bukatzen da jaia". Ematu Azmanek opari ugari jasotzen dituztela azpimarratu du, "umearentzat eta amarentzat".


'AQUIQAH' FESTA

EGILEAK: AOMATIF, EMATU, ETA FATIMA

JAIO TERRIAK: MAROKO ETA SAHARA

BIZITOKIA: LAUDIO

HIZKUNTZA: ARABIERA



Argazkia: www.middleeastmonitor.com

"Festa honek lau egun irauten ditu urtero". Siriar zein Marokoarrek ospatzen dute, besteak beste, eta kultura horietako festa ezagunetako bat da. "Familia osoarentzat arropa berria erosten dugu, baita arkumea ere, arkumea da garrantzitsuena", nabarmendu dute. "Arkumeak sano egon behar du, eta 6 hilabete baino gehiago eduki behar ditu", kontatu dute. Era berean, etxeetan jaki gozo ugari prestatzen dituzte. Gutxi gorabehera ekainaren 20 inguruan izaten da 'Arkumearen jaia', nahiz eta urtearen arabera 10 egunen bueltan egon daitekeen data.

"Lehenbiziko egunean mezkitarra joatena gara errezatzera, eta gero etxera itzultzen gara gosaltzera. Ondoren, arkumea hiltzen eta erretzen dugu, baita haragia ere. "Arkumea erosteko dirurik ez duten familiei beste senide edo lagun batzuek laguntzen diete, beraien arkumearen zati bat emanez, jende guztiak ospatzeko aukera izan dezan". Hori bai, arkumea beti zatitu behar da 3 zatitan. Zergatik gustatzen zaien egun hori galdetuta, argi dute: "Musulmanen ohitura delako, eta denok gaudelako oso pozik familia bisitatu eta elkarrekin egoteko aukera izateaz".



ARKUMEAREN JAIA

EGILEA: AMURRIKO EPA

JAIO TERRIA: SIRIA

BIZITOKIA: AMURRIO

HIZKUNTZA: ARABIERA



TAILANDIA



SONGKRAN JAIA

EGILEA: CAB

JAIO TERRIA: TAILANDIA

BIZITOKIA: AMURRIO

HIZKUNTZA: TAILANDIERA



Urteari oso modu orijinalen ematen diote ongietorria Tailandian. Cab tailandiarrek kontatu duenez, apirilaren 13tik 15era egiten dute festa. "Egun horietan zehar jendeak ez du lanik egiten, eta kalean egoten gara elkarri bustitzen". Tailandiako herritarrek ur pistolekin eta baldeekin ospatzen dute urtearen hasiera apirilean, beraz. Horrez gain, urte zenbakia ezberdina da euskal kulturarekiko: 2566. urtetik doaz (Euskal Herrian 2023.urtea den bitartean). "Egun horietan zehar jende nagusiak opariak, loreak eta beste hamaika detaile jasotzen ditu errespetu eta maitasunaren adierazle gisa. Era berean, familiak, afari bereziak egiteko elkartzeko dira data horietan", oroitu du tailandiarrek. Jai egun hori zergatik den berarentzako esanguratsua galdetuta, "denbora luzez elkar ikusi ez duen jendea batzen delako" gogoko duela aipatu du.



Argazkiak: Tim Pile eta Shutterstock



KORRIKA JAIA

EGILEA: IZAR

JAIOTERRIA: EUSKAL HERRIA

BIZITOKIA: ARRANKUDIAGA-ZOLLO

HIZKUNTZA: EUSKARA



Euskararen aldeko ekimena da KORRIKA, bi urtero behin antolatzen duena AEK izeneko euskara heziguneak (Alfabetatzeko Euskalduntze Koordinakundea). “10 egunez Euskal Herria osoa zeharkatzen dute furgoneta batekin korrika, kilometroz kilometro lekuko bat eskutik eskura pasatuta”. Egurrezkoa da ‘lekuko’ hori, eta KORRIKAren hasieran mezu ezkutu bat sartzen dute makil zatiaren barruan, amaieran -ekitaldi eta jai egun jendetsu batean- irakurtzen dena milaka pertsonaren aurrean. Jai hori gustatzearen arrazoia “ekimen zoroa” izatetik harago doa: “Oso magikoa eta ederra da 10 egunez ikustea edozein ordutan -24 orduz, KORRIKA ez baita geratzen ibilbide osoa bukatu arte- dantza talde bat, eskolak, fabrikak, familia edo lagun taldeak, eragile politiko eta sozialak, kirol elkarteak... euskararen alde, eta euskaraz bizitzeko pausoak ematen ari direla jakitea. Euskaraz bizi nahi duen herri baten erakustaldi ikusgarria da, edozein ordu eta tokitatik pasatuta ere”.

AIARALDEA

ARTZINIEGA

OKONDO

ARRANKUDIAGA-ZOLLO

ARAKALDO

LAUDIO

AIARA

OROZKO

AMURRIO

URDUÑA

ta gure eskualdean zer? Aiaraldean ere, herri bakoitzak bere jai-egun bereziak ditu. Hemen jaso ditugu horietako batzuk, herri bakoitzetik bat aukeratuta:

- DOLUMIN BARIKUA (LAUDIO)
- TXAKOLIN EGUNA (AMURRIO)
- OTXOMAIO (URDUÑA)
- SAN ISIDRO (AIARA)
- GAZTAIN EGUNA (OROZKO)
- ERDI AROKO AZOKA EGUNA (ARTZINIEGA)
- EGUEN ZURI (ARRANKUDIAGA-ZOLLO)
- SAN SEBASTIAN JAIA (OKONDO)

AIARALDEKO JAI EGUN BEREZIAK

EGILEA: BOR-BOR

JAIOTERRIA: EUSKAL HERRIA

BIZITOKIA: AIARALDEA

HIZKUNTZA: EUSKARA





'Dolumin barikuan' abere eta nekazari azoka jendetsua egoten da Laudion (Aste Santuaren aurreko ostiralean ospatzen da beti); 'Txakolin egunean' urteko mahastien uza eta feria uztartzen dituzte Amurrioko herrigunean; 'Otxomaio' egunean festa egun berezia egiten dute Urduñan; 'San Isidro' egunean (apirilak 15) abere eta nekazal azoka egoten da Arespalditzan; iraileko lehen asteartean 'Gaztain eguna' izaten da Orozkon (eta kirikiñausien ibilbidea egiten dute ehunka lagunek, herri bazkariarekin batera); iraileko hirugarren asteburuan 'Erdi Aroko Azoka' eta herri bilakatzen dute beti Artziniega; eta urtarrilaren 21etik gertuen dagoen asteburuan 'San Sebastian jaia' ospatzen dute Okondon (eta zuhaitzaren jaitsiera egiten dute auzotik herrira).





araba álava
foru aldundia diputación foral

